

GAZTETALK BILBAO EUROPA

#BilbaoGazteTalk



MINTEGIA - Etorkizuneko Hiri Gazteak: Balioetatik Eraikitzea
SEMINARIO - Ciudades Jóvenes del Futuro: Construyendo desde los Valores

GAZTETALK BILBAO EUROPA

#BilbaoGazteTalk



MINTEGIA - Etorkizuneko Hiri Gazteak: Balioetatik Eraikitzea

SEMINARIO - Ciudades Jóvenes del Futuro: Construyendo desde los Valores

MINTEGIAREN AURKEZPENA

ZER DA BILBO EUROPA
GAZTETALK?

ZER DA BILBO EUROPA GAZTETALK?

BILBO EUROPA GAZTETALK Europar Batasunaren eta Bilboko Udalaren Erasmus+ Ekintza 3 Programak finantzaturako proiektua da, Europako Batzordearen Elkarrizketa Egituratuaren eta Europa 2020 Estrategiaren bultzadaz, udal gazteria-politiken ekintza zehatzak eta etorkizuneko erronkak Europako esparrura eramateko asmoarekin.

Esparru horretan, Bilboko Udalaren Gazteria eta Kirola Sailak eta Bizkaiko Foru Aldundiak **BILBO EUROPA GAZTETALK Mintegia** antolatu dute, Bilborock aretoan, urriaren 3an eta 4an.

HELBURUAK

HELBURU OROKORRA

Hauxe da mintegiaren helburu orokorra: gazte, gizarte-eragile eta beste kolektibo batzuen arteko gogoeta partekaturako topagune bat sortzea, gazteentzako hiri erakargarriak eraikitzeari lotutako gaiak aztertzeke.

HELBURU BEREZIAK

Helburu bereziei dagokienez, berriz, honako hauek dira: batetik, alor horretan sortzen diren zalantzak eta erronkak identifikatzea eta, bestetik, gazteentzako hiri erakargarriak, balioetan oinarritutako hiriak eraikitzearen esparruan jarduerak eta etorkizuneko ekintzak zehaztea, denok batera.

NOLA EGITURATUKO DA MINTEGIA?

SAIO IREKIA

Mintegiaren testuingurua zehaztu eta ondorengo lanerako oinarriak finkatze aldera.

LANTALDEAK

Gazteriaren eta etorkizuneko hirien inguruko errealitateak, kezkak eta balioak antzemateko eta etorkizunari begirako erronka eta jarduera-ildoak zehazteko.

AMAIERAKO SAIOA

Erronkak eta jarduera-ildoak aurkezteko.

MINTEGIAREN EGITARAUA

URRIAREN 3a

- 10:00-10:30. Akreditazioak eta materiala biltzea.
- 10:30-11:00. Irekiera-ekitaldia: **Juan Mari Aburto**, Bilboko Alkatea.
- 11:00-11:30. Esparru-txostena: **Michal Hladky**, Kosice hiriko Creative Industryren zuzendaria. «Kosiceko sorkuntza-industria. Talentua, komunitatea eta sareak bultzatzen» (*Industria Creativa Kosice. Apoyando el talento, la comunidad y las redes*).
- 11:30-11:40. Galderak eta eztabaidak.
- 11:45-12:15. Atsedena

URRIAREN 3a

- 12:15-12:45. Esparru-txostena: **Imanol Zubero**, soziologoa. EHUKo irakaslea. «Hiria» eta «Gazteria» lotuz: *norekin, noren aurka, norengandik, norentzat, nor gabe, noren atzetik... noren arabera?* (*Relacionando Ciudad y Juventud: con, contra, de, desde, para, sin, tras.. segun?*)
- 12:45-13:00.
 - Galderak eta eztabaida.
- 13:00-14:00. Pechakucha. Bilboko esperientziak
 - Fair Saturday
 - Recrea
 - Zurrumurruen aurkako Bilboko estrategia
 - Spoken Wor

URRIAREN 3a

- 15:30-18:30
- Lantaldeak (saio itxia).

URRIAREN 3a

- 10:00-13:30. Lantaldeak (saio itxia).
- 13:30-14:00. Ondorioak eta amaiera-ekitaldia.

PARTAIDETZARI BURUZKO DATUAK



Saio
irekia

- Lagun kopurua
- 75

Saio itxia
(60
lagun)

- 32 gazte
 - 21 emakume
 - 11 gizon
- 28 eragile
 - 16 emakume
 - 12 gizon



DISEINUA ETA METODOLOGIA

LANTALDEAK



bilbo

NOR DAGO LANTALDEETAN?

GAZTEAK

ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO TEKNIKARIAK

**MINTEGIKO GAIEN ESPARRUAN ARITZEN DIREN
KOLEKTIBOAK ETA ERAGILEAK**

METODOLOGIA

1. Oso metodologia irekia landu da, era guztietako iritzi eta ekarpenak sortu ahal izateko. Metodologia horretan, lehenengo eta behin Bilboko gaur egungo egoera landu nahi izan da, ondoren gazteen arabera mahaian landutako gai bakoitzeko indarguneak eta ahulguneak aztertzeke, eta ahulguneak estaltzeko planteia litezkeen ekintza zehatzak erabakitzeke.
2. Lan-mahaietan kontuan hartzeko elementuak:
 - Mahaietako kide guztien partaidetza funtsezkoa da eta, hartara, denek dute zeresana planteatutako gai guztietan.
 - Gaian landutako galderak beti irekiak izango dira.
 - Partaide guztiak eraikitzeke eta ideiak sortzeko gogoz etorri dira, eta horixe da Gaztetalken helburu nagusia.
3. Metodologia hori aurrera eramateko, mapa mentalak eraiki ziren, beste euskarri batzuetan oinarrituta, partaideek Bilboko egungo mapa irudikatzeko eta gure hirirako etorkizuneko mapa posiblea diseinatzeko.
4. Informazioa atera, antolatu eta hezurmamitzeko metodo eraginkorra dira mapa mentalak. Gai bati buruzko gogoetak kartografiatuz, oharrak hartu eta ideiak adierazteko era logikoa eta sortzailea da.

NOLA HELDU ZAIO GOGOETARI?

1. FASEA. BILBOKO EGOERAREN MAPA MENTALA

Fase horretan, mahaietako bakoitzeko partaideak kezkatu eta lasaitzen zituzten alderdiak landu zituzten.

Alderdi horiek landu ondoren, Bilbon gai horietako bakoitzaren inguruan lantzen diren ekimenak (kimen publiko nahiz pribatuak) aztertu zituzten. Ondoren, ekimen horietako zein hobetu eta zein abiarazi behar ziren zehaztu zituzten mahai bakoitzeko partaideek, betiere goian aipaturiko kezkak estaltzeko asmoarekin.

Nazioarteko ekimen interesgarriak ere landu zituzten, Bilbon ezartzeko erreferentzia egokiak izan litezkeelakoan.

2. FASEA. KEZKAK ERRONKA BIHURTZEA

Lehen fasean irudikatutako mapa mentaletik abiatua, kezka horiek lantzeko erronka bihurtu zituzten partaideek. Geroago, erronka horiek ekintza zehatzak bihurtuko ziren.

Fase horretan, erronka berriak proposatzeaz gain, erronka horiek burutzeko zer erakunde behar izango ziren ere identifikatu zuten partaideek.

NOLA HELDU ZAIO GOGOETARI?

3. FASEA. ERRONKAK EKINTZA ZEHATZAK BIHURTZEA

Hirugarren fasean, hasierako erronketatik abiatuta ekintza zehatzak hezurmamitu zituzten partaideek: jarduerak, prestakuntza, programak diseinatzea, espazio eta euskarri berriak ezartzea... Brainstorminga egiteko eta ekintza bakoitzean egon beharreko eragileak identifikatzeko eskatu zitzaien partaideei.

4. FASEA. BEHARREZKO GIZARTE BALIOAK BILATZEA

Balio-zerrenda bat eskaini zitzaien partaideei, balio horien artean hiri gazteak eraikitzen lagunduko duten balioak identifika zitzaizkien.



Changes her Sector

KEZKATIK EKINTZARA

ZEIN DIRA EMAITZA
NAGUSIAK?





1. GAI MULTZOA.

SEXU, KULTURA
ETA GENERO
ANIZTASUNA

SEXU, KULTURA ETA GENERO ANIZTASUNA

KEZKA NAGUSIAK

1. Aniztasunaren alorrean ari diren ekimen pribatuen iraunkortasuna eta egonkortasuna.

Kasu batzuetan, alor horretako lana zaildu egiten dute baliabide ekonomikoen eskasiak, erakunde publikoen erritmoek eta koordinazio-gabeziak.

2. Gazteak eta aniztasuna:

Hona esparru horretako hiru kezka nagusiak: gazteriak berak dakarren aniztasuna kontuan ez hartzea; gazteei zuzendutako ekintza eta programak eurentzako erakargarriak ez izatea, eta ahalegin txikia egiten dela gazteek dagoeneko abian dituzten ekimenak antzeman, lagundu eta sustatzeko.

3. Komunikazioa eta aniztasuna:

Bi dira kezkak: erabiltzen diren komunikazio-bideek eta hizkuntzak ez dutela gazteekin konektatzea lortzen, eta erakunde publikoekin bat egiteko topagune gutxi daudela.

4. Aniztasunerako espazioak:

Espazio publikoak ez daude beti gazteen beharrianetara egokitzeko edo beraiei erantzuteko pentsatuta eta, gainera, ez dute aniztasuna sustatzen.

ZEIN DIRA ERRONKAK?

1. Proiektu erakargarriagoek eta interesgarriagoek denboran irautea, jarraitutasuna izatea eta baten batzuk negozio-eredu bihurtzea.
2. Inplikaturako alderdi guztien (gazteen, eragileen, instituzioen...) arteko elkarrizketa aktiboa sortzea, gazteen kezken eta ekimenen berri izan eta beraiek aitortzeko.
3. Gazteen artean aniztasunak duen garrantzia agerian jartzea.
4. Gazteek erabiltzen dituzten espazioen inguruan gogoeta egitea, talde itxiak bihur ez daitezen.

SEXU, KULTURA ETA GENERO ANIZTASUNA

EKINTZAK (I)

1. Honako «mapatze» hauek egitea Bilbon:

- (a) Dauden baliabideak aztertzea, eta elkartruke-sare publiko/pribatua abiaraztea (Wikitokia, jardunbide egokiaren adibidea). Baliabideak bilduko dituen datu-basea eratu eta web-plataforma baten bidez eskura ipintzea proposatu da.
- (b) Gazteek burututako ekimenak behatzea, eta euren benetako beharrizanen azterketa egitea.

2. Beste leku batzuetan alor horretan egindako ekimen arrakastatsuak identifikatzea, gure hirian ezarri ahal izateko (Benchmarkinga).

3. Komunikazioari lotutako honako ekintza hauek proposatu dira:


- (c) Bideoblogak eta webgune bat sortzea, eta gizarte-sareak eta gazteek eurek eurentzat egindako beste formatu batzuk erabiltzea (bideojokoak, komikiak...).
- (d) Eskura dauden espazioen gida bat sortzea, zer baliabide dauden hobeto adierazteko.

4. Gazteek erabiltzen dituzten espazioetara joatea (ikastetxeak, kontzertuak, skate pistak...), aniztasunaren garrantziaren berri emateko.

5. Gazte-taldeak elkarrekin harremanetan jartzeko ekintzak sustatzea (adibidez: gastronomiari, musikari, kirolari eta abarri lotutako jarduerak). .

EKINTZAK (II)

6. Jardueren finantzaketa ahalbidetuko duten lizentzia mistoak onartzea Udalak (adibidez: antzerkia egiteko lokal bat edukitzea, eta aldi berean taberna izateko aukera ematea).
7. Indarrean dauden proiektuak finantzatu eta bultzatzea, jarraikortasuna izaten laguntzeko.
8. Nodo/bitartekariak prestatzea, instituzioen eta gazteen arteko lotura eginez, sareak sortzeko.
9. Belaunaldi-arteko guneak sortzea.



2. GAI MULTZOA.

KULTURA,
SORKUNTZA ETA
BERRIKUNTZA

KULTURA, SORKUNTZA ETA BERRIKUNTZA

KEZKA NAGUSIAK

1. Gazteentzako kultura, sorkuntza eta berrikuntza. Gaur egungo eskaintza ez da gazte guztiengana heltzen.
2. Programazioak diseinatzeko direnean, gazteak aintzat hartzea.
3. Gaur egun zirkuituetatik kanpo gelditzen dira gazteek antolatutako ekimen interesgarri batzuk, definizio sortzaile eta berritzaileak dituztenak.
4. Gazteek kulturaren, sorkuntzaren eta berrikuntzaren inguruan jasotzen duten heziketa zirkuitu klasikoetara zuzenduta dago, dagoeneko zaharkituta dauden eta berrikustea eskatzen duten kontzeptuei lotuta.
5. Instituzioek malgutasun handiagoa behar dute.
 - (a) Instituzioak horren zurrinak izanik, zaildu egiten dute proiektu sortzaile eta berritzaileak garatzea. Ildo horretan, gehiegizko burokrasia, aukera-egituren ikusgarritasun eza eta instituzio eta gazteen arteko hesiak dira kezka nagusiak.
4. Kudeaketa-ereduak gehiegi bideratzen dira emaitzetara eta, hartara, sorkuntza- eta berrikuntza-prozesuak zailtzen dituzte.
5. Bilboko kultura-guneak geografikoki pilatuegi daude (Zorrotzaurre, Bilbo Zaharra...) eta, hartara, urrunegi eta, ondorioz, ikusteko zailago daude.

ZEIN DIRA ERRONKAK?

1. Gaur egun hirian dauden gazteen kultura-ekimen guztiak hurbilarazteko orotariko estrategiak erabiltzea.
2. Elkarrizketa-guneak sortzea, gazteekin eurekin eta eurentzat programatzeko: zer nahi duten, zer esperientzia eskatzen dituzten, zer da gehien gustatzen zaiena...
3. Gazteei zuzendutako kultura-jardueretarako espazio publikoari buruzko araudia malgutzea.
4. Gaur egun erabiltzen ez diren udal guneen erabilera optimizatzea, gazteek eskura ditzaten.
5. Proiektuak, finantzaketa, kudeaketa... errazteko/bultzatzeko formulak sortzea.
6. Kultura-ekimenak auzoetara eta beste hirigune batzuetara deszentralizatzea.

EKINTZAK (I)

1. Beste hiri batzuetan arrakasta lortu duten ekimenak eta esperientziak identifikatzea. Herriarren, kulturaren eta gazteen ikuspuntutik positiboak diren ekimenak.
2. Espazioen, diru-laguntzen, bestelako laguntzen, eragileen... zerrenda/mapatzea. Garrantzitsua da erakundeek elkarrekin egitea, eta gazteekin eta gazte-taldeekin batera.
3. Gune hutsen poltsa sortzea eta kudeaketa partekatua ahalbidetzea.
4. Gazteei eta gazte-taldeei aholkularitza eskaintzea, kultura-alorreko proiektuak hezurmamitzeko aukera izan dezaten.
5. Sailen arteko koordinazioa eta elkarlana sustatzea, gazteen proiektuak bultzatzeko.
6. Administrazioko langileentzako trebakuntza, gazteen mundua aintzat hartuta diseinatzeko eta programatzeko.
7. Kultura-proiektu amateurak abiarazteko mikrolaguntzen programak ezartzea. Herriarrek eta espazio publikoa aktibatzeke iraupen laburreko ekimen txikiak burutzea.
8. Esperimentatzeko guneak bultzatzea.
9. Sailen artean ezagutza partekatzea, proiektu bakoitza leku egokira bideratuz, abiarazten laguntzeko.



3. GAI MULTZOA.

HERRITARREN KONPROMISOA

HERRITARREN KONPROMISOA

KEZKA NAGUSIAK

1. Kasu batzuetan, gazteen kultura parte-hartzaile txikia dela eta, ez dakite nola eta non parte hartu.
2. Noiz edo noiz, partaidetza-ereduak instrumentalizatuta, despertsionalizatuta egoten dira eta ez dira lotesleak. Gauzak horrela, partaideen artean frustrazioa eragiten dute. Gainera, prozesu horiek ez diete beti erantzuten gazteen kezka eta beharrezaneiei.
3. Ez da sustatzen pentsamendu kritikoa duen gazteria eta, ondorioz, gazteak hiri-konpromisorako guneetatik, eztabaida publikoetatik eta partaidetzatik urrunduta egiten dira.

HERRITARREN KONPROMISOA

ZEINTZUK DIRA ERRONKAK?

1. Partaidetzarako bideak eta ereduak zehaztea, hobetzea eta zaintzea:

eragileen arteko harreman hurbilagoa behar da. Eredu berriak zehaztu eta egungo beharrianetara egokitu beharra dago. Eredu inklusiboagoak eta hurbilagoak sortzea. Gainera, parte hartzeko bide informalak ere zaindu behar ditugu.

2. Parte hartzeko espazio formalak berriz pentsatu eta indartzea.

(a) Parte hartzeko espazio formal ugari daude (eskola-kontseiluak, unibertsitateak, barrutietako kontseiluak, sareak eta plataformak...) baina ez dira ordezkapen- eta erabaki-guneak. Espazio horiek bidea egin eta sinesgarritasuna eskuratu behar dute. Halere, horiek guztiak indartu beharra dago, eta gazte-taldeak bertan parte hartzera animatu.

3. Parte hartzearen kontzeptua zabaltzea. Gauza asko egiten dira, nahiz eta guk parte hartzeko modutzat jo ez.

4. Hezkuntzako aisialdia gazteek parte hartzeko espazioa izan daiteke.

5. Ezagutzea eta aitortzea.

Dagoeneko parte hartzen duten gazteen argazkia falta zaigu: zertan parte hartzen duten ezagutuz baino ezin dugu egiten duten hori aitortu, bultzatu; zertan dabilzan jakinez gero soilik bultzatuko ditugu pertsonak parte hartzera; eta zer egiten duten jakinez gero baino ez diogu emango ahotsa jardunean dabilen jendeari.

HERRITARREN KONPROMISOA

EKINTZAK

1. Prozesu parte-hartzaileetan diziplina anitzeko foroak sustatzea.
2. Gizarte-eragileen, instituzio publikoen eta gazteen arteko harreman zuzena egon dadila.
3. Erabakitzeko ahalmena duenarekin harreman zuzena egon dadila; eragile guztiek har dezatela parte prozesu osoan: gizarte-taldeek, erakunde publikoek, gazteek, profesionalek.
4. Parte hartzeko prozesuak aintzat har ditzala gazteak, eta fase guztietan har ditzala aintzat, gainera: diseinuan, antolaketan, ondorioetan, ebaluazioetan.
5. Parte hartzeko prozesuan eskuratutako proposamenak abian jar daitezela.
6. Parte hartzeko bide birtualak, bi norabidetakoak, antolatzea.
7. Prozesu iraunkorrakoak, ibilbide luzeagokoak, sustatzea.
8. Jardunbide egokiak identifikatzea.
9. Dagoeneko abian diren prozesuak aitortzea.
10. Dagoeneko abian diren partaidetza-jarduerak eta -ekimenak, herritarren konpromisoa sortzen dutenak, mapatzea.



4. GAI MULTZOA.

INGURUMEN
IRAUNKORTASUNA

INGURUMEN IRAUNKORTASUNA

KEZKA NAGUSIAK

1. Kezkatuta agertu dira, instituzioen aldetik laguntza gutxi jasotzen duelako bizikleta hirian garraiobidetzat erabiltzearen aukerak eta txirrindulariek hirietan duten mugikortasunak kalitate urria duelako.
2. Elikadura-subiranotasunak ez du laguntza nahikorik.
3. Sentsibilizazio- eta kontzientziazio-falta.
 - (a) Belaunaldi berriak ez dira nahikoa hezten hondakin gutxiago sortzeko, gutxiago kutsatzeko, energia-baliabide gutxiago kontsumitzeko, kontsumo-eredu alternatiboak jorratzeko, bidezko merkataritzaren aldeko apustua egiteko...
4. Erakunde publikoen malgutasunik eza.
 - (b) Indarreko legeria oso zurrana da, erritmo geldoak... gauzak horrela, zaildu egiten dute proiektuak abian jartzea.

INGURUMEN IRAUNKORTASUNA

ZEIN DIRA ERRONKAK?

1. Bizikleta/autoa/oinezkoa elkarbizitza bultzatzea. Gazteek erabiltzen dituzten lekuetara bizikletaz edo oinez joateko aukera bultzatzea eta bizikleta-bidezko mugikortasunaren kalitatea hobetzea.
2. Motorrik gabeko mugikortasuna bultzatzea eta erabilera motordunak gutxiago kutsatzea sustatzea (adibidez, autoaren erabilera partekatua sustatzea).
3. Tokiko ekoizpena eta horretarako guneak bultzatzea (adibidez, hiri-baratzeak, hiriko berdeguneak berriz aztertzea...). Beraietan egiten den ekoizpena ekologikoa izateko indarra jartzea (produktu kutsatzaileak, pestizidak... galaraztea edo erabilera murriztea). .
4. Ingurumen-iraunkortasunari lotutako programak sustatzea. Adibidez: erabiltzaile nahiz eraikinen energia-kontsumoa murriztea, egungo azpiegiturak energia-kontsumoa hobetzeko aprobetxatzea (eraikuntzari lotuta), kontratazio publikoan energia berriztagarriak bultzatzea, berdeguneetan CO2en isuriak murrizteko/gutxitzeko gailuak erabiltzea, eta 0 km-a indartzea.
5. Hezkuntza-sisteman ohitura iraunkorrei buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak egitea.
6. Aisialdi iraunkorra lortzea.
7. Gazteen artean aukera etikoak, ekologikoak eta iraunkorrak bistaratu eta sustatzea (adibidez, elkarlaneko ekonomia, baliabideen kontsumoa, hondakinen kudeaketa, berrerabiltzea, erosketa berdea...).

INGURUMEN IRAUNKORTASUNA

EKINTZAK (I)

1. Bizikletak gordetzeko lokal itxi eta seguruak prestatzea: gauez itxita egongo diren lokal publikoak.
2. Trafikoa moteltzeko Bilbo Slow. Trafikoa moteltzeko gunek eta neurriak: espaloiak zabaltzea, abiadura-mugak kontrolatzea...
3. Bilbon eskola-bideak ezartzea.
4. Aldirietako aparkalekuak jartzea garraio publikoaren alboan, dagoeneko badauden azpiegiturak aprobetxatuz.
5. TAO erabiltzea ibilgailurik kutsatzaileenak zergapetzeko.
6. Bilbo Handiko garraio publikoa indartzea puntako orduetan.
7. aktibatu+ programa.
8. Autoa partekatzea: carsharinga, carpooalinga laguncar eta blablacar.
9. Kaleak patinetarako, patineteetarako eta skateetarako arautzea.
10. 2.0 berdeguneak: apaintzeko helburutik erabilgarritasunera eta funtzionaltasunera: fruta-arbolak ipintzea eta beste.
11. Udal inausketa konpostajera eramatea.

INGURUMEN IRAUNKORTASUNA

EKINTZAK (II)

12. Eskola-jantokietan eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetan 0Km-a sistema ezartzea.
13. Familientzako Argitu programa: energia-kontsumoa kontrolatzea: app bat...
14. Hondakin higienikoetarako ontzia ezartzea.
15. Arkitektura-karreraren Energia-eraginkortasunaren irakasgaia bultzatzea.
16. Euronet 5050 programa bultzatzea ikastetxeetan.
17. Auzo iraunkorrak, belaunaldi arteko lankidetzak-ekintza txiki bidez: auzoko iraunkortasuna bultzatuko duten ekintza txikiak burutzea (txorientzako etxetxoak ezartzea...) eta batez ere adinekoak eta gazteak elkartzea.
18. «Udal x 100 berriztagarri» plataforma, energia berriztagarriak kontratatzeke.
19. Gazteak askotan erabiltzen dituzten gunetako eraikin publikoetan energia-eraginkortasunari buruzko etiketak agerian jartzea: lana erraztea zerbait zaborretara botatzen denean eta jardunbide egokiak antzematean.
20. Hondakinen sailkapenari eta elektrizitate kontsumo arduratsuari lotutako seinaleztapena.
21. Eskola-materialen funts bat sortzea, hurrengo belaunaldiek erabiltzeko.
22. Aisialdirako zentroek eta tabernek hondakinak agerian sailkatzea, gauez dabilzan gazteak kontzientziatzen laguntzeko.
23. Etengabeko prestakuntzako ikastetxeetan hiri-baratzeak sortzea: ez dadin gertatu txango batera mugatzea; ikastetxeetan ziklo mugatuak sortzea.
24. Zabortegetarako eta araztegetarako txangoak, agerian jartzeko leku horiek, beraien tamaina eta hondakinen bolumena.

INGURUMEN IRAUNKORTASUNA

EKINTZAK (III)

25. Alor horri lotutako ekimenak (azokak, elikagai-merkatuak...) burutzen dituzten gazteek unibertsitate-kredituak eskura ditzatela.
26. Berrerabiltze atsegina eta sortzailea sustatzea, gazteengan sinetsi eta gazteek umore onean jarduteko.
27. Ikastetxeetan ziklo itxiak sortzea (materialen erabileran, hondakinen sailkapenean, birziklatzean, berrerabiltzean...) eta prozesu osoa ikusteko aukera egotea.
28. Produktu ekologikoak erabiltzeko sentsibilizazio-kanpaina.
29. Vendinga prestakuntza-zentroetan, erosketa berdeko produktuekin: fruta, bidezko merkataritzako kafea...
30. 2.0 berdeguneak diseinatzean, gazteen partaidetza sustatzea.
31. Erabiltzen ez diren espazioak mapeatu eta hainbat erabilera ematea: Bilbo Zaharreko teilatu lauak hiri-baratzeak egiteko, eguzki-plakak jartzeko... Mapatzea egin eta horiek ustiatzeko modua aztertzea.
32. Ur Partzuergoak bultzatutako "ez elikatu munstroa" kanpaina.
33. Garbiketarik eta hondakin-bilketarik gabeko eguna antolatzea, sortzen ditugun hondakinen tamaina bistaratzeko.
34. Sentsibilizazio-kanpaina inpaktudunak (adibidez: gerrilla-marketina) gazteen partaidetzarekin, eta kanpainak gizarte-sareetan.
35. Kontsumitzeko ordezeko aukerak zabaltzeko publizitate-espazioak sustatzea.
36. Mugikortasun iraunkorra bultzatuko duen ordenantza lantzea: tramiteak eta paper-kontuak arintzea.



HIRI GAZTEAK
ERAIKITZEKO...

BALIOAK

BALIOAK

Hiri gazteak eraikitzeko, funtsezkotzat jotzen dira mintegiak landutako gaietan zeharkakoak diren honako balio hauek:

1. Konpromisoa.
2. Aniztasuna.
3. Berdintasuna.
4. Gizarte-justizia.
5. Errespetua.
6. Elkartasuna.